

## EUSKO JAURLARITZA

### LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA

*AGINDUA, 2023ko urriaren 5ekoa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, zeinaren bidez behin betiko onespena ematen baitzaio Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziari.*

1. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2020ko abenduaren 1eko Aginduaren bidez, hasierako onarpena eman zitzaion Getariako Portuaren Antolamendu Plan Bereziari, eta erabaki zen jendaurreko informazioaren izapidera eramatea, 45 egunean, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 97. artikulua kontuan hartzekotzat jotzen duen 95.2 artikuluan xedatutakoarekin bat. Era berean, ingurumen-azterketa estrategikoa eta plan berezia kontsulta-izapidearen mende jartzea erabaki zen, 45 egun balioduneko epean, eraginpeko administrazio publikoentzat eta aurrez kontsultatutako interesdunentzat, Ingurumen Administrazioaren zuzendariaren 2019ko uztailaren 15eko Ebazpenaren bidez formulatutako irismen-dokumentuaren arabera.

2. Jendaurreko erakustaldiaren izapiderako, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta 2020ko abenduaren 10eko «Noticias de Gipuzkoa» eta «Diario Vasco» egunkarietan iragarkiak jarri ziren. Emandako epean, zenbait alegazio-idazki aurkeztu ziren, eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzak aztertu eta erantzun zituen, plan hau sustatu duen aldetik.

3. Era berean, zenbait txosten sektorial jaso dira, eta horiek kontuan hartu dira Getariako Portuko Antolamenduko Plan Berezia idazterakoan.

4. Bestalde, 2021eko otsailaren 15ean, Getariako Udalak espedientearen gaineko txostena eman zuen, Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 97.2 artikuluan ezarritakoari jarraikiz, 2020ko abenduaren 15ean.

5. 2020ko urriaren 30ean, Emakundek txostena eman zuen, garai hartan indarrean zegoen Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 19. artikulutik 20. artikulura bitartean xedatutakoa behar bezala aplikatzen zela egiaztatzeko.

6. Lurraldea Antolatzeko Batzordeko Gipuzkoako Hirigintza Plangintzaren Atalak aldeko txostena eman zuen, uztailaren 14ko 5/2021 saioan.

7. Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez, behin-behinean onartu zen Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedientea.

8. 2022ko azaroaren 15ean, Kostaldearen eta Itsasoaren Jasangarritasuneko Zuzendaritza Nagusiak eman zuen aldeko txostena.

## GOBIERNO VASCO

### DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES

*ORDEN de 5 de octubre de 2023 del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes por la que se aprueba definitivamente el Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria.*

1. Mediante Orden de 1 de diciembre de 2020, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes, fue aprobado inicialmente el Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, acordando someterlo al trámite de información pública durante el plazo de 45 días, según lo dispuesto en el artículo 95.2 por remisión del artículo 97, ambos de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo. Así mismo, se acordó someter el Estudio Ambiental Estratégico junto con el Plan Especial al trámite de consultas durante el plazo de 45 días hábiles, de las Administraciones públicas afectadas y de las personas interesadas que habían sido previamente consultadas de acuerdo con el Documento de alcance formulado mediante Resolución de 15 de julio de 2019, del Director de Administración Ambiental.

2. El acuerdo de información pública se hizo efectivo mediante la inserción de los correspondientes anuncios tanto en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, como en los diarios «Noticias de Gipuzkoa» y «Diario Vasco», todos ellos de 10 de diciembre de 2020. Durante el plazo otorgado se presentaron distintos escritos de alegaciones que fueron analizados y contestados por la Dirección de Puertos y Asuntos Marítimos del Departamento de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente del Gobierno Vasco, promotora del presente Plan.

3. Igualmente, han tenido entrada diversos informes sectoriales los cuales han sido tenidos en cuenta en la redacción del presente Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria.

4. Por su parte, con fecha 15 de febrero de 2021, el Ayuntamiento de Getaria informó el expediente en virtud de lo establecido en el artículo 97.2 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco, con fecha 15 de diciembre de 2020.

5. Con fecha 30 de octubre de 2020, Emakunde emitió el correspondiente informe, a los efectos de verificar la correcta aplicación de lo dispuesto en los artículos 19 a 20 de la entonces vigente Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

6. El expediente fue informado favorablemente por la Sección de Planeamiento Urbanístico de Gipuzkoa de la Comisión de Ordenación del Territorio, en su sesión 5/2021, de 14 de julio.

7. Por Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda fue aprobado provisionalmente el expediente del Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria.

8. La Dirección General de Sostenibilidad de la Costa y del Mar ha emitido informe favorable de fecha 15 de noviembre de 2022.

9. Bestalde, ingurumen-prozedurari dagokionez, 2021eko urriaren 15eko Ebazpenaren bidez, Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren ingurumen-adierazpen estrategikoa egin zen, eta *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian* argitaratu zen, 2021eko azaroaren 19an.

10. Plan Bereziaren izapidetzeari dagokionez, kontuan hartu da Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 97. artikuluan ezarritakoa, eta, igorpen bidez, lege horren 95. eta 96. artikuluetan eta martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 31. eta 32. artikuluetan ezarritakoa (46/2020 Dekretua, lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen).

11. Prestatutako dokumentazio teknikoak plan berezi bat osatzeko behar diren baldintzak betetzen ditu, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 69. artikuluan xedatutakoaren arabera.

12. Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 89.5 artikulua xedatzen duenez, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko dira behin betiko onesten diren erabakien eduki osoa eta, gutxienez, hirigintza-arauena. Adierazten du, orobat, behin betiko onarpen-erabakia dagokion lurralde historikoan zabalkunde handiena duen egunkarian edo egunkarietan ere argitaratuko dela.

13. Martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 7.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, Getariako Portuaren Plan Berezi honen behin betiko onarpenaren publikitatearekin batera, gutxienez agindu honen edukia eta ordenantza arautzaileak emango dira (I. eranskinean daude).

14. Bestalde, martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 7.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, ingurumen-ebaluazio estrategiko arrunta egin zaien planei dagokienez, informazio hau erantsi da II. eranskin gisa:

a) Laburpen bat, alderdi hauek jasoko dituen:

1. Nola integratu diren planean ingurumen-arloko alderdiak.

2. Planean nola hartu diren kontuan ingurumen-azterketa estrategikoa, jendaurreko informazioaren emaitzak eta kontsulten emaitzak, barnean hartuta, hala badagokio, mugaz gaindiko kontsultak eta ingurumen-arloko adierazpen estrategikoa, bai eta prozesuan sortutako desadostasunak ere, halakorik izan bada.

3. Aukeratutako hautabidea hautatzeko arrazoiak, aintzat hartutako gainerako hautabideekin alderatuta.

4. Zer helbide elektronikotan jarriko duen jendaurrean organo substantiboak planaren eduki osoa.

b) Planaren aplikazioak ingurumenean izandako eraginaren jarraipena egiteko hartu diren neurriak.

15. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak eskumena du Getariako Portuaren Plan Bereziaren behin betiko onospen hau emateko, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 97. artikuluan eta martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 32. artikuluan xedatutakoaren arabera (46/2020 Dekretua, lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 11/2021 Dekretuaren 13.2.c) artikuluari dagokionez).

Bada, aplikatu beharreko legedia kontuan hartuta, honako hau

XEDATZEN DUT

*Lehenengoa.* Getariako Portuko Antolamenduko Plan Berezia behin betiko onartzea, bai eta bere I. eranskina, ordenantza arautzaileak eta bere II. eranskina ere (ingurumen-alderdien integrazioaren laburpena).

9. Por otra parte, respecto al procedimiento medioambiental, mediante Resolución de 15 de octubre de 2021 fue formulada la Declaración Ambiental Estratégica del Plan Especial de Ordenación del Puerto Especial de Getaria, siendo publicada en el *Boletín Oficial del País Vasco* de 19 de noviembre de 2021.

10. En cuanto a la tramitación del Plan Especial, se ha tenido en cuenta lo establecido en el artículo 97 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo y, por remisión, en los artículos 95 y 96 de la misma, así como en los artículos 31 y 32 del Decreto 46/2020, de 24 de marzo, de regulación de los procedimientos de aprobación de los planes de ordenación del territorio y de los instrumentos de ordenación urbanística.

11. La documentación técnica elaborada cumple los requisitos precisos para constituir un Plan Especial de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 69 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo.

12. El artículo 89.5 de la citada Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo dispone que se publicará en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa el contenido íntegro de los acuerdos de aprobación definitiva y, cuando menos, de las normas urbanísticas. Igualmente señala que el acuerdo de aprobación definitiva se publicará, además, en el diario o diarios de mayor difusión en el territorio histórico correspondiente.

13. En virtud de lo establecido en el artículo 7.1 del antedicho Decreto 46/2020, de 24 de marzo, la publicidad de la aprobación definitiva del presente Plan Especial del Puerto de Getaria incluirá, como mínimo el contenido de la presente Orden, así como las ordenanzas reguladoras, que se adjuntan como anexo I.

14. Por su parte, dado lo previsto el artículo 7.2 del Decreto 46/2020, de 24 de marzo, respecto de los planes que hayan sido sometidos a evaluación ambiental estratégica ordinaria, se adjunta, como anexo II, la siguiente información:

a) Un extracto con los siguientes aspectos:

1. De qué manera se han integrado en el plan los aspectos ambientales.

2. Cómo se ha tomado en consideración en el plan el estudio ambiental estratégico, los resultados de la información pública y de las consultas incluyendo, en su caso, las consultas transfronterizas y la declaración ambiental estratégica, así como, cuando proceda, las discrepancias que hayan podido surgir en el proceso.

3. Las razones de la elección de la alternativa seleccionada, en relación con las alternativas consideradas.

4. Una referencia a la dirección electrónica en la que el órgano sustantivo pondrá a disposición del público el contenido íntegro del plan.

b) Las medidas adoptadas para el seguimiento de los efectos en el medio ambiente de la aplicación del plan.

15. Este Departamento de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes es competente para dictar la presente aprobación definitiva al Plan Especial del Puerto de Getaria, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 97 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo y 32 del Decreto 46/2020, de 24 de marzo, de regulación de los procedimientos de aprobación de los planes de ordenación del territorio y de los instrumentos de ordenación urbanística en relación con el 13.2.c) del Decreto 11/2021, de 19 de enero, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

A la vista de la legislación de aplicación,

DISPONGO

*Primero.* Aprobar definitivamente el Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria junto con su anexo I, Ordenanzas reguladoras y anexo II, Síntesis de la Integración de los Aspectos Ambientales.

*Bigarraena.* Agindu hau *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian* eta Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea eta baita Gipuzkoako Lurralde Historikoan hedadura handienetarikoa duen egunkari batean ere.

Agindu hau behin betikoa da eta administrazio-bideari amaiera ematen dio. Beraz, beraren aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hileko epean, jakin arazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko urriaren 5a.—Ignacio María Arriola López, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburua. (7722)

GETARIAKO PORTUAREN ANTOLAMENDURAKO PLAN BEREZIA BEHIN BETIKO ONARTZEN DUEN LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIOETAKO SAILBURUAREN AGINDUAREN I. ERANSKINA.  
ORDENANTZA ERREGULATZAILEAK

— Aurkibide orokorra:

Atariko titulua. Plan berezia aplikatzeari buruzko xedapen orokorrak.

Lehenengo titulua. XIV Portua» eremuan aplikatzekoa den hirigintza-araubide orokorra.

1.1. kapitulua. Eremuan aplikatzekoa den kalifikazio orokorreko araubidea.

1.2. kapitulua. Eremuan aplikatzekoa den kalifikazio xehatuko araubidea.

1.3. kapitulua. Plan bereziaren garatzeko eta egikartzeko araubide juridikoa.

Bigarren titulua. «XIV Portua» eremuan aplikatzekoak diren eraikuntza- eta erabilera-ordenantza orokorrak.

2.1. kapitulua. Zona eraikigarriari aplikatzekoak diren ordenantza orokorrak (Zonak: P - «Arrantza-erabilera», NR - «Ur-aisialdiko erabilera», IC - «Industria- eta merkataritza-erabilera» eta M - «Erabilera mistoak»).

2.2. kapitulua. Zona eraikiezinei aplikatzekoak diren ordenantza orokorrak (Zonak: V - «Bideak», EL - «Espazio libreak», LA - «Ur-geruza», IP - «Portu- azpiegitura»).

2.3. kapitulua. Urbanizazioaren eraikuntza-kalitatearen eta zerbitzu-mailaren gutxienezko baldintzak.

Hirugarren titulua. Eremuko zona eraikigarriari aplikatzekoak diren eraikuntza- eta erabilera-ordenantza partikularrak.

— Aurkibidea:

Atariko titulua. Plan berezia aplikatzeari buruzko xedapen orokorrak.

0.1. artikulua. Esku-hartzearen esparrua.

0.2. artikulua. Indarrean sartzea eta indarraldiaren baldintzak.

0.3. artikulua. Proiektuaren esparru arauemailea.

0.4. artikulua. Proiektua osatzen duten dokumentuak eta haien irismen arauemailea.

Lehenengo titulua. «XIV Portua» eremuan aplikatzekoa den hirigintza-araubide orokorra.

1.1. kapitulua. Eremuan aplikatzekoa den kalifikazio globaleko araubidea.

1.1.1. artikulua. Eremuko kalifikazio globaleko araubidearen formulazioa.

1.2. kapitulua. Eremuan aplikatzekoa den kalifikazio xehatuko araubidea.

1.2.1. artikulua. Eremuko kalifikazio xehatuko araubidearen formulazioa.

1.2.2. artikulua. Dagoen kultura-intereseko ondarea.

*Segundo.* Publicar la presente Orden en el *Boletín Oficial del País Vasco*, en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y en el diario de mayor difusión del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Esta Orden es definitiva y pone fin a la vía administrativa, pudiendo interponerse contra la misma recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de su publicación.

Vitoria-Gasteiz, a 5 de octubre de 2023.—El consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes, Ignacio María Arriola López. (7722)

ANEXO I A LA ORDEN DEL CONSEJERO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES POR LA QUE SE APRUEBA DEFINITIVAMENTE EL PLAN ESPECIAL DE ORDENACIÓN DEL PUERTO DE GETARIA.  
ORDENANZAS REGULADORAS

— Índice general:

Título preliminar. Disposiciones de carácter general referentes a la aplicación del plan especial.

Título primero. Régimen urbanístico general aplicable en el área «XIV Portua».

Capítulo 1.1. Régimen de calificación global aplicable en el área.

Capítulo 1.2. Régimen de calificación pormenorizada aplicable en el área.

Capítulo 1.3. Régimen jurídico para el desarrollo y ejecución del plan especial.

Título segundo. Ordenanzas generales de edificación y uso aplicables en el Área «XIV Portua».

Capítulo 2.1. Ordenanzas generales aplicables a las zonas edificables (Zonas P - «Uso Pesquero», NR - «Usos Náutico-Recreativos», IC - «Usos Industriales y Comerciales», y M - «Usos Mixtos»).

Capítulo 2.2. Ordenanzas generales aplicables a las zonas no edificables (Zonas V - «Vialidad», EL - «Espacios Libres», LA - «Lámina de agua», IP - «Infraestructura Portuaria»).

Capítulo 2.3. Condiciones mínimas de calidad constructiva y nivel de servicio de la urbanización.

Título tercero. Ordenanzas particulares de edificación y uso aplicables a las zonas edificables en el área.

— Índice:

Título preliminar. Disposiciones de carácter general referentes a la aplicación del plan especial.

Artículo 0.1. Ámbito de intervención.

Artículo 0.2. Entrada en vigor y condiciones de vigencia.

Artículo 0.3. Marco normativo del proyecto.

Artículo 0.4. Documentos constitutivos del proyecto y alcance normativo de los mismos.

Título primero. Régimen urbanístico general aplicable en el área «XIV Portua».

Capítulo 1.1. Régimen de calificación global aplicable en el área.

Artículo 1.1.1. Formulación del régimen de calificación global en el Área.

Capítulo 1.2. Régimen de calificación pormenorizada aplicable en el área.

Artículo 1.2.1. Formulación del régimen de calificación pormenorizada del Área.

Artículo 1.2.2. Patrimonio de interés cultural existente.

1.3. kapitulua. Plan berezia garatzeko eta egikaritzeko araubide juridikoa.

1.3.1. artikulua. Araubide orokorra.

1.3.2. artikulua. Egikaritze-araubidearen zehaztapena.

1.3.3. artikulua. Antolamendutik kanpoko eraikinak, instalazioak eta erabilerak.

1.3.4. artikulua. Portuko eraikuntza-obrak eta dagokion urbanizazioa gauzatzeko beharrezkoak diren obra-proiektuak formulatzeko araubidea.

1.3.5. artikulua. Urbanizazio-kargen finantzaketa-baldintzak.

1.3.6. artikulua. Partzelazio-baldintzak.

1.3.7. artikulua. Eraikitze-ahalmena baliatzea.

1.3.8. artikulua. Lehen erabilerako lizentziak emateko baldintzak.

Bigarren titulua. «XIV Portua» eremuan aplikatzekoak diren eraikuntza- eta erabilera-ordenantza orokorrak.

2.1. kapitulua. Zona eraikigarriari aplikatzekoak diren ordenantza orokorrak (Zonak: P - «Arrantza-erabilera», NR - «Ur-aisialdiko erabilerak», IC - Industria- eta merkataritza-erabilerak eta M - «Erabilera mistoak»).

2.1.1. artikulua. Zona eraikigarriari aplikatzekoa den eraikuntza- eta erabilera-araubidearen formulazioa.

2.1.2. artikulua. Lerrokadurak.

2.1.3. artikulua. Eraikinen profila eta altuera.

2.1.4. artikulua. Higiene- eta osasun-baldintzak eta segurtasunekoak.

2.1.5. artikulua. Eraikuntza-kalitatearen eta tratamendu estetikoaren baldintzak.

2.1.6. artikulua. Sestrapeko espazioak erabiltzeko baldintzak.

2.1.7. artikulua. Irisgarritasuneko baldintza orokorrak.

2.2. kapitulua. Zona eraikiezinei aplikatzekoak diren ordenantza orokorrak (Zonak: V - «Bideak», EL - «Espazio libreak», LA - «Ur-geruza», IP - «Portu-azpiegitura»).

2.2.1. artikulua. Zona hauetan aplikatzekoa den eraikuntza- eta erabilera-araubidearen formulazioa: V - «Bideak».

2.2.2. artikulua. Zona hauetan aplikatzekoa den eraikuntza- eta erabilera-araubidearen formulazioa: EL - «Espazio libreak».

2.2.3. artikulua. Zona hauetan aplikatzekoa den eraikuntza- eta erabilera-araubidearen formulazioa: LA - «Ur-geruza».

2.2.4. artikulua. Zona hauetan aplikatzekoa den eraikuntza- eta erabilera-araubidearen formulazioa: IP - «Portu-azpiegitura».

2.3. kapitulua. Urbanizazioaren eraikuntza-kalitatearen eta zerbitzu-mailaren gutxieneko baldintzak.

2.3.1. artikulua. Hirigintzako oztupoak ezabatzea.

2.3.2. artikulua. Zerbitzu-sareen eta gainazalen tratamendu ezaugarri nagusiak.

2.3.3. artikulua. Saneamendu-sarearen ezaugarriak.

2.3.4. artikulua. Ur-hornidurako sarearen ezaugarriak.

2.3.5. artikulua. Argindar eta argiteria publikoaren sarearen ezaugarriak.

2.3.6. artikulua. Bideak, espaloiak eta oinezkoentzako esparruak zolatu eta sendotzea.

2.3.7. artikulua. Baldintza inklusiboak eta segurtasunekoak.

Capítulo 1.3. Régimen Jurídico para el desarrollo y ejecución del plan especial.

Artículo 1.3.1. Régimen general.

Artículo 1.3.2. Determinación del régimen de ejecución.

Artículo 1.3.3. Edificios, instalaciones y usos fuera de ordenación.

Artículo 1.3.4. Régimen para la formulación de los proyectos de obra necesarios para la materialización de las obras de construcción del puerto y la urbanización correspondiente.

Artículo 1.3.5. Condiciones de financiación de las cargas de urbanización.

Artículo 1.3.6. Condiciones de parcelación.

Artículo 1.3.7. Ejercicio de la facultad de edificar.

Artículo 1.3.8. Condiciones para la concesión de licencias de primera utilización.

Título segundo. Ordenanzas generales de edificación y uso aplicables en el área «XIV Portua».

Capítulo 2.1. Ordenanzas generales aplicables a las zonas edificables (Zonas P - «Uso Pesquero», NR - «Usos Nautico-Recreativos», IC - «Usos Industriales y Comerciales», y M - «Usos Mixtos»).

Artículo 2.1.1. Formulación del régimen de edificación y uso aplicable a las zonas edificables.

Artículo 2.1.2. Alineaciones.

Artículo 2.1.3. Perfil y altura de los edificios.

Artículo 2.1.4. Condiciones higiénico-sanitarias y de seguridad.

Artículo 2.1.5. Condiciones de calidad constructiva y tratamiento estético.

Artículo 2.1.6. Condiciones de uso de los espacios bajo rasante.

Artículo 2.1.7. Condiciones generales de accesibilidad.

Capítulo 2.2. Ordenanzas generales aplicables a las zonas no edificables (Zonas V - «Vialidad», EL - «Espacios Libres», LA - «Lámina de agua», IP - «Infraestructura Portuaria»).

Artículo 2.2.1. Formulación del régimen de edificación y uso aplicable en las zonas V - «Vialidad».

Artículo 2.2.2. Formulación del régimen de edificación y uso aplicable en las zonas EL - «Espacios Libres».

Artículo 2.2.3. Formulación del régimen de edificación y uso aplicable en las zonas. LA - «Lámina de agua».

Artículo 2.2.4. Formulación del régimen de edificación y uso aplicable en las zonas. IP - «Infraestructura Portuaria».

Capítulo 2.3. Condiciones mínimas de calidad constructiva y nivel de servicio de la urbanización.

Artículo 2.3.1. Supresión de barreras urbanísticas.

Artículo 2.3.2. Características generales de las redes de servicios y del tratamiento superficial.

Artículo 2.3.3. Características de la red de saneamiento.

Artículo 2.3.4. Características de la red de abastecimiento de agua.

Artículo 2.3.5. Características de la red de energía eléctrica y alumbrado público.

Artículo 2.3.6. Pavimentación y afirmado de viales, aceras y espacios peatonales.

Artículo 2.3.7. Condiciones inclusivas y de seguridad.



Hirugarren titulua. Eremuko zona eraikigarriei aplikatzekoak diren eraikuntza eta erabilera-ordenantza partikularrak.

- P.1 zona.
- NR.1 zona.
- NR.2 zona.
- IC.1 zona.
- IC.2 zona.
- IC.3 zona.
- M.1 zona.
- M.2 zona.
- M.3 zona.
- M.4 zona.
- M.5 zona.

#### ATARIKO TITULUA

##### PLAN BEREZIA APLIKATZEARI BURUZKO XEDAPEN OROKORRAK

###### 0.1. artikulua. *Esku-hartzearen esparrua.*

1. Proiektu honen esku-hartzearen esparrua «XIV Portua» hirigintza-eremua da, egun indarrean dauden Getariako Udal Plangintzako Arau Subsidiarioetan definitzen dena.

###### 0.2. artikulua. *Indarrean sartzea eta indarraldiaren baldintzak.*

1. Plan Berezia indarrean sartuko da behin betiko onetsi ostean eta indarrean dagoen legeriaren argitalpen-baldintzak betetakoan, eta indarrean jarraituko du indargabetzen ez den bitartean.

2. Proiektu honetako zehaztapanetako baten edo batzuen deuseztasunak, deuseztatzeak edo aldaketak ez dio eragingo gainerakoen baliozkotasunari, salbu eta azken horietako bat aplikaezina bada haiekin lotuta egoteagatik edo haien mendekoa izateagatik.

###### 0.3. artikulua. *Proiektuaren esparru arauemailea.*

1. Proiektu honen esparru arauemailea da: aipatutako Arau Subsidiarioetan zehaztutako araubide juridiko-urbanistiko orokorra, eta, bereziki, «XIV Portua» esku-hartze eremuari dagozkion zehaztapanetan ezarritakoa.

2. Era berean, eta organo sektorial eskudunek berariaz eskatuta, hegazkintza zibilaren arloan aplikagarri den araudi hau zehazten da: «Getariako Portuaren Plan Bereziaren» eremu osoa Donostiako aireportuari dagozkion zortasun aeronautikoen eremuetan sartuta dago. Araudi hau osatzeko, Hegazkintza Zibileko Zuzendaritza Nagusiak Plan Berezi hau egiteko helarazitako txostenean zortasun aeronautikoei buruz emandako dokumentazio grafikoa eranskin honen amaieran jasotzen da, eta eremu horri eragiten dioten Donostiako Aireportuko Zortasun Aeronautikoen azalera mugatzaileen maila-lerroak irudikatzen dira. Azalera horiek zehazten dute zein altuerak (itsas mailarekiko) ez duen ezein eraikinek gairiditu behar (elementu guztiak barne, hala nola antenak, tximistorratzak, tximiniak, aire girotuko ekipoak, igogailukutzak, kartelak, dekorazio-erremateak, etab.), lurraren edo objektu finkoaren aldaketak (zutoinak, antenak, haize-sorgailuak, palak, kartelak, etab.), bai eta bide-galiboa edo burdinbidea ere.

###### 0.4. artikulua. *Proiektua osatzen duten dokumentuak eta haien irismen arauemailea.*

1. Plan Berezia osatzen duten dokumentuak.

Título tercero. Ordenanzas particulares de edificación y uso aplicables a las zonas edificables en el área.

- Zona P.1.
- Zona NR.1.
- Zona NR.2.
- Zona IC.1.
- Zona IC.2.
- Zona IC.3.
- Zona M.1.
- Zona M.2.
- Zona M.3.
- Zona M.4.
- Zona M.5.

#### TÍTULO PRELIMINAR

##### DISPOSICIONES DE CARÁCTER GENERAL REFERENTES A LA APLICACIÓN DEL PLAN ESPECIAL

###### Artículo 0.1. *Ámbito de intervención.*

1. El ámbito de intervención del presente Proyecto es el Área Urbanística «XIV Portua», definida en las Normas Subsidiarias de Planeamiento Municipal de Getaria actualmente vigentes.

###### Artículo 0.2. *Entrada en vigor y condiciones de vigencia.*

1. El presente Plan Especial entrará en vigor una vez aprobado definitivamente y cumplimentados los requisitos de publicación establecidos en la legislación vigente, y mantendrá su vigencia en tanto no sea derogado.

2. La nulidad, anulación o modificación de una o varias de las determinaciones del Proyecto no afectará a la validez de las restantes, salvo en el supuesto de que alguna de ellas resulte inaplicable por circunstancias de interrelación o dependencia de aquéllas.

###### Artículo 0.3. *Marco normativo del Proyecto.*

1. El régimen jurídico-urbanístico general definido en las mencionadas Normas Subsidiarias y, de forma específica, en las determinaciones de las mismas correspondientes al ámbito de intervención –«XIV Portua»– constituye el marco normativo del presente proyecto.

2. Asimismo, y a petición expresa de los órganos sectoriales competentes, se explicita la siguiente normativa aplicable en materia de Aviación Civil: La totalidad del ámbito del «Plan Especial del puerto de Getaria» se encuentra incluida en las Zonas de Servidumbres Aeronáuticas correspondientes al Aeropuerto de San Sebastián. La documentación gráfica sobre servidumbres aeronáuticas facilitada en el informe trasladado por la Dirección General de Aviación Civil para la elaboración del presente Plan Especial, como complemento de la presente normativa, se recoge al final del presente anexo, y se representan las líneas de nivel de las superficies limitadoras de las Servidumbres Aeronáuticas del Aeropuerto de San Sebastián que afectan a dicho ámbito, las cuales determinan las alturas (respecto al nivel del mar) que no debe sobrepasar ninguna construcción (incluidos todos sus elementos como antenas, pararrayos, chimeneas, equipos de aire acondicionado, cajas de ascensores, carteles, remates decorativos, etc.), modificaciones del terreno u objeto fijo (postes, antenas, aerogeneradores incluidas sus palas, carteles, etc.), así como el gálibo de viario o vía férrea.

###### Artículo 0.4. *Documentos constitutivos del proyecto y alcance normativo de los mismos.*

1. Documentos constitutivos del Plan Especial.

Honako dokumentu hauek osatzen dute proiektua:

«A» dokumentua: Memoria.

«B» dokumentua: Ordenantza erregulatzaileak.

«C» dokumentua: Etapen plana.

«D» dokumentua: Ekonomia eta finantza-azterketa eta jasangarritasun ekonomikoarena.

«E» dokumentua: Genero ikuspuntua.

«F» dokumentua: Hizkuntza inpaktuaren ebaluazioa.

«G» dokumentua: Egikaritze laburpena.

«H» dokumentua: Planoak.

2. Dokumentuen izaera arauemailea.

Proiektuaren arau-edukia artikuluko 1. epigrafean adierazitako dokumentuetan definitzen bada ere, dokumentu hauek dute, berariaz, arau-izaera eta hirigintzako esku-hartzea erregulatze izaera: «B. Ordenantza erregulatzaileak», «C. Etapen plana» eta «E. Planoak» dokumentuko «E.II. Antolamendu-planoak» atalean espresuki halakotzat definitutako planoak. Beraz, hirigintzako esku-hartzeak zehaztaper horien arabera izan beharko du nahitaez.

Gainerako dokumentuak adierazleak, erreferentzialak edo justifikatzeak dira funtsean; hortaz, edukian kontraesanik badago arestian aipatutakoekin, azken horiek nagusitu dira.

3. Desadostasunak dokumentuen artean.

Hirigintza-zehaztaper jakin bati buruzko desadostasunik egonez gero eskala desberdinetan egindako arau-izaerako planoen artean, eskala zabalagoan eginiko planoetan ezarritakoa nagusitu da, salbu eta bat ez etortzea azken horien edukiko akats material nabari baten ondoriozkoa denean.

## LEHENENGO TITULUA

### «XIV Portua» EREMUAN APLIKATZEKO DEN HIRIGINTZA-ARAU BIDE OROKORRA

#### 1.1. KAPITULUA. EREMUAN APLIKATZEKO DEN KALIFIKAZIO GLOBALEKO ARAU BIDEA

1.1.1. artikulua. «XIV Portua» eremuaren «kalifikazio global» araubidearen formulazioa.

1. «XIV Portua» eremua Getariako udal-plangintzako indarreko Arau Subsidiarioetan xedatutako kalifikazio orokorreko araubidearen menpe dago. Arau horien arabera, aipatutako esparru osoa dago portu-zonatzat kalifikatuta.

2. Proiektu honek, zona global orokor horretan, zona edo jarduera-esparruen zortzi tipologia hauek bereizi ditu, «II.2. - Esparru funtzionalak» planoan ikus daitekeenez:

- Portu-zona - «Arrantza-erabilerak».
- Portu-zona - «Ur-aisialdiko erabilerak».
- Portu-zona - «Industria- eta merkataritza-erabilerak».
- Portu-zona - «Erabilera mistoak».
- Portu-zona - «Lehorreko sarbidea».
- Portu-zona - «Ur-geruza».
- Portu-zona - «Itsasertza».
- Portu-zona - «Hondakin-uren araztegia».

El presente proyecto está constituido por los siguientes documentos:

Documento «A»: Memoria.

Documento «B»: Ordenanzas reguladoras.

Documento «C»: Estudio de las directrices de organización y gestión de la ejecución.

Documento «D»: Estudio de viabilidad económico-financiera y de sostenibilidad económica.

Documento «E»: La perspectiva de género.

Documento «F»: Evaluación del impacto lingüístico.

Documento «G»: Resumen ejecutivo.

Documento «H»: Planos.

2. Carácter normativo de los documentos.

Si bien el contenido normativo del proyecto queda definido por el conjunto de los documentos señalados en el epígrafe 1 del presente artículo, son los documentos «B. Ordenanzas Reguladoras», «C. Plan de Etapas» y los planos expresamente definidos como tales del apartado «E.II. Planos de Ordenación» del documento «E. Planos» los que poseen, específicamente, ese carácter normativo y de regulación de la intervención urbanística, y, por tanto, ésta se deberá ajustar obligatoriamente a sus determinaciones.

El resto de los documentos poseen un carácter fundamentalmente indicativo, referencial o justificativo, por lo que, en caso de contradicción en su contenido con los citados anteriormente, serán aquéllos los que prevalezcan.

3. Discordancias entre documentos.

Si se advirtiese discordancia respecto a una determinación urbanística concreta entre planos de carácter normativo realizados a diferentes escalas, prevalecerá lo establecido en los planos redactados a una escala más amplia, salvo que la discrepancia responda a un error material manifiesto en el contenido de estos últimos.

## TÍTULO PRIMERO

### RÉGIMEN URBANÍSTICO GENERAL APLICABLE EN EL ÁREA «XIV Portua»

#### CAPÍTULO 1.1. RÉGIMEN DE CALIFICACIÓN GLOBAL APLICABLE EN EL ÁREA

Artículo 1.1.1. Formulación del régimen de «calificación global» del Área «XIV Portua».

1. El Área «XIV Portua» queda sometida al régimen de calificación global establecido en las Normas Subsidiarias de Planeamiento Municipal vigentes en el municipio de Getaria que califican la totalidad del ámbito de referencia como Zona Portuaria.

2. El presente proyecto distingue en dicha zona global genérica las ocho tipologías de zonas o ámbitos funcionales siguientes cuya concreción se representa en el plano «II.2. - Ámbitos funcionales»:

- Zona Portuaria - «Usos pesqueros».
- Zona Portuaria - «Usos náutico - recreativos».
- Zona Portuaria - «Usos industriales y comerciales».
- Zona Portuaria - «Usos mixtos».
- Zona Portuaria - «Acceso terrestre».
- Zona Portuaria - «Lámina de agua».
- Zona Portuaria - «Litoral».
- Zona Portuaria - «Depuradora de aguas residuales».

## 1.2. KAPITULUA. EREMUAN APLIKATZEKO DEN KALIFIKAZIO XEHATUKO ARAUBIDEA

1.2.1. artikulua. «XIV Portua» eremuaren «kalifikazio xehatuko» araubidearen formulazioa.

1. «XIV Portua» eremuak, beraz, kalifikazio xehatuko araubidea hau beteko du: proiektuan xedatutako zonakatzehaztapenen ondoriozkoa –«II.3. Kalifikazio xehatua» planoan agertzen dira zehaztapenok-. Horrenbestez, kontuan hartuko dira ondoren zehazten diren erabilera xehatuko zona-motak eta zonen definizioa:

- \* Arrantza-erabilerako zona, P.

Hauek baimentzen dira zona horietan: portu-erabilerari eta haiekin zerikusia dutenei lotutako eraikuntza eta erabilerak, aplikatzeko legeria sektorialaren arabera, hirugarren sektoreko erabilerak barne.

Produktzio-zona horien berezko erabileratzat hartzen dira: itsasontziak armatu eta konpontzea, industriako eta hornidurako gaiak biltegitratzea eta, oro har, arrantza- eta portu-erabilerak. Era berean, tresnak, garabiak eta lanabes mugikorak erabil daitezke zamak eta ontziak manipulatzeko, baita portuko instalazioetan eraikuntza-obra eta mantentze-lanak egiteko ere.

Erabilera onargarritzat baimentzen dira, berariaz, aparkaleku-erabilera, hala lurzoruan, nola lurpean, baita hirugarren sektoreko erabilera haien lagungarriak eta ontzietarako erregai-horniketa ere. Erabilera hauek onartu egin ahalko dira, soilik portuaren jarduerarekin lotuta badaude, KEOren 105. artikuluan ezarritakoaren arabera.

- \* Ur-aisialdiko erabileretako zonak, NR.

Zona horietan nagusiki baimenduta daude eraikuntza eta hirugarren sektoreko erabilerak (merkataritza, ostalaritza, aisia, turismoa, horren antzekoak eta osagarriak), baita portu-erabilerari lotutako eraikuntza eta erabilerak ere; EAEko Portuen eta Itsas Garraioen Legean eta Kostaldeei buruzko Legean eta horren Erregelamenduan ezarritako mugen barruan.

Erabilera onargarritzat baimentzen dira, berariaz, aparkaleku-erabilera, hala lurzoruan, nola lurpean, baita komunitate-ekipamendukoak eta ontzietarako erregai-horniketa ere. Erabilera hauek onartu egin ahalko dira, soilik portuaren jarduerarekin lotuta badaude, KEOren 105. artikuluan ezarritakoaren arabera.

- \* Industria- eta merkataritza-erabileretako zonak, IC.

Portuko zerbitzuak izan gabe, zerbitzugunean egin daitezkeen merkataritza- edo industria-jarduerak nagusiki baimentzen diren zonak.

- \* Erabilera mistoetako zonak, M.

Lehen aipatutako portu-zonen (P, NR, IC) berezko edozein erabilera baimentzen den zonak.

- \* Bideen zonak, V.  
– Ibilgailuen bidea, VR.  
– Oinezkoen bidea, VP.

Zona horietan baimenduta dago ibilgailuek zirkulatzea eta aparkatzea, baita oinezkoak ibiltzea ere, modu libre eta bereizian (VR), edo oinezkoak eurak bakarrik (VP).

- \* Babeseko espazio libreak, ELP.

Hondartzako zona naturalak, gune berdeak edo zolatuak. Hasiara batean, debekatutako dago bertan eraikitzea, berezko erabileratzat baitute espazio libreak izatea, paisaiak babesteko eta oinezkoen zirkulaziorako.

- \* Ur-geruza, LA.

Zona horietan baimenduta dago ontziak ibiltzea eta uztea legeria sektorialaren eta aplikatzeko den araubidearen arabera.

## CAPÍTULO 1.2. RÉGIMEN DE CALIFICACIÓN PORMENORIZADA APLICABLE EN EL ÁREA

Artículo 1.2.1. Formulación del régimen de «calificación pormenorizada» del Área « XIV. Portua».

1. El Área «XIV Portua» queda sometida al régimen de calificación pormenorizada resultante de las determinaciones de zonificación establecidas en el presente proyecto, graficadas concretamente en el plano «II.3. Calificación Pormenorizada» del mismo, de acuerdo con los tipos de zonas de uso pormenorizado y la definición de zonas que a continuación se relacionan:

- \* Zona de uso pesquero, P.

Zonas en las que se autorizan la edificación y los usos vinculados a los usos portuarios y a aquellos vinculados con los mismos de acuerdo con la legislación sectorial aplicable, incluyendo los usos terciarios auxiliares.

Como usos característicos de estas zonas productivas se enuncian el armamento y reparación de buques, el almacenamiento industrial y de suministros y los usos pesqueros y portuarios en general. Se admite asimismo el uso de aparatos, grúas y utillaje móvil para manipulación de cargas y embarcaciones, así como para realización de obras de construcción y mantenimiento de las instalaciones portuarias.

Como usos admisibles se autoriza expresamente el uso de aparcamiento tanto en superficie como en subsuelo, así como los usos terciarios auxiliares de aquellos y el de suministro de combustible para embarcaciones. Estos usos sólo podrán ser admitidos cuando estén relacionados con la actividad portuaria, de acuerdo con el artículo 105 del RGC.

- \* Zona de usos náutico-recreativos, NR.

Zonas en las que se autorizan predominantemente la edificación y los usos terciarios: comerciales, hosteleros, recreativos, turísticos, asimilados y auxiliares de éstos, así como la edificación y los usos vinculados a los usos portuarios, con las limitaciones establecidas en la Ley de Puertos y en la de Costas y su Reglamento.

Como usos admisibles se autoriza expresamente el uso de aparcamiento en superficie y subsuelo, y los de equipamiento comunitario y el de suministro de combustible para embarcaciones. Estos usos sólo podrán ser admitidos cuando estén relacionados con la actividad portuaria, de acuerdo con el artículo 105 del RGC.

- \* Zona de usos industriales y comerciales, IC.

Zonas en las que se autorizan predominantemente aquellas actividades de carácter mercantil, industrial o comercial que, sin constituir servicios portuarios, se pueden realizar en zona de servicio.

- \* Zona de usos mixtos, M.

Zonas en las que se autorizan cualquiera de los usos propios de las zonas portuarias, anteriormente relacionados (P, NR, IC).

- \* Zonas de vialidad, V.  
– Vialidad rodada, VR.  
– Vialidad peatonal, VP.

Zonas en las que se autorizan la circulación y aparcamiento de vehículos, así como el tránsito peatonal de forma libre y segregada (VR) o limitada al uso peatonal (VP).

- \* Espacios libres de protección, ELP.

Zonas naturales de playa, espacios verdes o pavimentados en los que se excluye en principio la edificación cuyos usos característicos son el de espacios libres para la protección paisajística y la circulación peatonal.

- \* Lámina de agua, LA.

Zonas en las que se autorizan la circulación y estancia de embarcaciones de acuerdo con la legislación sectorial y la normativa aplicables en la materia.

\* Portuko azpiegiturak (dikeak), IP.

Zona hauetako eraikuntza orokorrean erregulatuta dago portu-legeriaren aplikaziotik ateratzen diren baldintza orokorren bitartez. Berariaz baimentzen da azpiegitura energetikoak ezaritzea ikerketarako eta energia ekoizteko.

Erabilera onargarritzat baimentzen da, berariaz, ontzientzako erregai-hornidura.

#### 1.2.2. artikulua. Dagoen kultura-intereseko ondarea.

Ildo horretan, Plan Bereziak horri buruz indarrean dauden Arau Subsidiarioetako aurreikuspenak jasotzen ditu, kultura-ondareko kide izan daitezkeelakoan interesa duten zenbait elementu barne.

Gainera, kontuan hartu behar da portuaren mugak Getaria hiriguneko monumentu-multzoarekin bat datozela, eta, beraz, hirigunean ezarritako babesak aplikatuko zaizkie ondoko bi eremuetako elementuei (Hirigunea eta Portua).

Era berean, Kultura Ondareari buruzko Legearen 65. artikulua (6/2019 Legea) aplikatuko da Arau Subsidiarioetan eremurako definitutako Ustezko Arkeologia Zonetan, eta hori portuko badia eta bokaleko itsaspeko zonetara hedatuko litzateke, baita hegoaldeko kai-muturraren eta Malkorbeko hondartzaren artean ere, baleen balizko hondoratzeak eta arrantza-hondarrak dirrela eta.

Azkenik, kontuan hartu behar da proposatutako eraikuntza-jarduera batzuek Kultura Ondarean izan dezaketean inpaktuariskua eta horiek prebenitzeko beharra, hala nola Tintalekuko teilatupea edo Kofradiako kaiko lurpeko garajea, bai eta edozein urbanizazio-jarduketa portuko ingurumen-eta kultura-balioekin harmonizatzea ere.

### 1.3. KAPITULUA. PLAN BEREZIA GARATZEKO ETA EGIKARITZEKO ARAUBIDE JURIDIKOA

#### 1.3.1. artikulua. Araubide orokorra.

Plan Berezi hau garatzeko eta egikaritzeko araubide juridikoa honako xedapen hauei egokituko zaie:

– Indarrean dauden Arau Subsidiarioetan ezarritako araubidea –bai oro har, bai berariaz– «XIV Portua» eremuari dagozkion zehaztapenetan.

– Bere edukian ezarritako araubide juridikoko zehaztapenak.

#### 1.3.2. artikulua. Egikaritze-araubidearen zehaztapena.

Eremu osoa titulartasun publikokoa da, eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak proiektuaren garapena kudeatuko du Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzaren bitartez.

Jarduketa-esparruak barnean hartuz gero adierazitako titulartasunaz bestelakoa duen lursailik, desjabetze-espediterearen bitartez eskuratuko da hori.

#### 1.3.3. artikulua. Antolamendutik kanpoko eraikinak, instalazioak eta erabilerak.

Antolamendutik kanpo deklaritzen dira proiektu honetan xedatutako erabilera- eta eraikuntza-araubidearekin bat ez datozen eraikinak, instalazioak eta erabilerak.

#### 1.3.4. artikulua. Portuko eraikuntza-obra eta dagokion urbanizazioa gauzatzeko beharrezkoak diren obra-proiektuak formulatzeko araubidea.

Plan Bereziaren esku-hartze eremuan aurreikusitako urbanizazio-obra behar diren proiektuak izango dituzte kaien handi-

\* Infraestructura portuaria (diques), IP.

Zonas en las que la edificación está regulada genéricamente por las condiciones generales que resultan de la aplicación de la legislación de puertos. Se autoriza expresamente la disposición de infraestructuras energéticas para la investigación y producción de energía.

Como usos admisibles se autoriza expresamente el uso de suministro de combustible para embarcaciones.

#### Artículo 1.2.2. Patrimonio de interés cultural existente.

En este sentido, el Plan Especial recoge las previsiones de las Normas Subsidiarias vigentes al respecto, incluyendo una serie de elementos en el ámbito que disponen de algún interés en lo que se refiere a su posible pertenencia al patrimonio cultural.

Por añadidura, se ha de tener en cuenta la coincidencia de parte de los límites del puerto con el Conjunto Monumental del Casco de Getaria, por lo que se aplicarán las protecciones establecidas en el Casco a aquellos elementos que formen parte de los dos ámbitos contiguos (Casco y Puerto).

Igualmente será de aplicación el artículo 65 de la Ley de Patrimonio Cultural, Ley 6/2019) en las Zonas de Presunción Arqueológica definidas en las NN.SS. para el ámbito, lo que se haría extensivo a las zonas submarinas en la ensenada y boca del puerto, así como entre el espigón Sur y la playa de Malcorbe por posibles naufragios y restos de pesca de ballenas.

